**Andoaingo udalerriko hainbat berdegune, parke, lorategi eta zuhaiztiren mantenimendu, iraunarazpen, birjarpen eta hobekuntza zerbitzua.**

Servicio de mantenimiento, conservación, reposición y mejora de diferentes zonas verdes, parques, jardines y arbolado existentes en el municipio de Andoain.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kontratu mota** Tipo de contrato | **Zerbitzuak** / Servicios | **Prozedura** Procedimiento | **Irekia** / Abierto | **Esp. Kodea** Código Exp. | **2020AKN20003** |
| **Lizitazio elektronikoa** Licitación electrónica | ☒ **Bai** / Sí ☐ **Ez** / No | **Tramitazioa** Tramitación | ☒ **Ohikoa** / Ordinaria ☐ **Premiazkoa** / Urgente | | |

**1.- Kontratistak Udalari eman behar dion zerbitzuak barruan hartzen dituen lanak.**

1.1.- Bi sortetarako, enpresak eman behar duen zerbitzuarekin Andoaingo berdegune, parke, lorategi eta zuhaiztien egoera hobetu egingo da, bai estetikari dagokionez eta baita egoera fisiologikoari dagokionez ere, Udal Zerbitzu Teknikoen irizpideei jarraiki.

Esleipendunek, behar den gaitasun profesionala izango duten eta ondorio guztietarako bere kargura edukiko dituen langile-kopuru egokiarekin, nahiz mota guztietako makina eta tresnekin, behar den moduan eta epean erantzungo dio aipatu lanen burutzapenari.

Lan hauek legediak eta Udalak zehaztutako ingurumen irizpideei behar duten begirunearekin burutu behar dira. Bereziki gai hauek: zaraten sorrera, hondakinen kudeaketa, isurketak, ura eta beste baliabideen erabilera eta lorezaintza jasangarrirekin lotura duten beste prozesu batzuk ere (landare mota, etab.)

Zerbitzua ematean jarraian egin beharreko lan guztien deskribapen labur bat egiten bada ere, erreferentziatzat hartu beharko dira beti, bai lan horietarako eta baita akatsez aipatu ez diren lan horietarako ere, Andoaingo lorategi publikoei buruzko udal ordenantza edo udal zerbitzu teknikoek igorritako jarraibideak hartuko dira kontuan.

Kontuan izan behar da, halaber, jasotako lan bakoitza gunearen mailaren arabera egin

**1.- Labores que comprende el servicio a prestar al Ayuntamiento por parte del contratista.**

1.1.- Para los dos lotes, el nivel de prestación de los servicios deberá ser tal que el estado de las zonas verdes, parques, jardines y arbolado de Andoain se vea mejorado tanto en cuanto a su estética como en lo relativo a su estado fisiológico, de acuerdo con el criterio de los Servicios Técnicos Municipales.

Los/as adjudicatarios/as, con el personal idóneo en número y competencia profesional y a su cargo a todos los efectos, así como los equipos de maquinaria y herramientas de todo tipo, atenderá, en el tiempo y la forma debidos, la realización de las expresadas labores.

Estas labores deberán realizarse además con el debido respeto a las directrices ambientales recogidas en la legislación y fijadas por el Ayuntamiento. De forma especial en todo lo relacionado con la generación de ruidos molestos, gestión de residuos, emisiones, uso del agua y de otros recursos y procesos de jardinería sostenible (planta a utilizar, etc.)

Sin perjuicio de la breve descripción de cada una de las labores que seguidamente se efectúa, deberán servir siempre como referencia, tanto para éstas como para otras labores que se hayan podido omitir por error, las disposiciones contenidas en la Ordenanza sobre jardinería pública del municipio de Andoain o las directrices emanadas de los servicios técnicos municipales.

Debe tenerse presente, asimismo, que cada una de las labores recogidas habrá que realizarse en

ZIRRIBORROA - BORRADOR



Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

beharko dela. Udal honetako Zerbitzuetako Batzorde Irizpinemaileak onartutako A, B, C edo Mantentze Berezia mantentze-eremuen zonakatzeari jarraituko diote (agiri honen zati diren planoetan jasota daude eremu horiek).

función de la categoría de la zona, de acuerdo con la zonificación en áreas de mantenimiento A, B, C o de Mantenimiento Específico, aprobada por la Comisión Informativa de Servicios de este Ayuntamiento, que se recoge en los planos que forman parte de este pliego.

1. SORTA

LOTE I.

A motako mantentzea: Erdialdean daudelako, paseatzeko lekuak direlako, herriko leku ezagunak direlako eta beste arrazoi batzuengatik intentsiboki tratatuak izan diren eta tratatzen diren zonalde horien mantentze-lan arretatsuak dira. Normalean, soropila apaindurazkoa da, zonalde sortu berria delako edota zonalde berritua delako. Era berean, zuhaixka-masak edota lore-konposizioak nahiz azken urteetako zuhaitz-landaketa berriak zonalde horietan biltzen dira. Arretaz mantendu behar dira azalerak jorratuta eta garbi, belar txarrik gabe eta zaborrik gabe, eta arretaz moztu eta perfilatu behar dira heskaiak.

Mantenimiento de tipo A: Es el mantenimiento esmerado de aquellas zonas que, por ser lugares céntricos, de paseo, lugares emblemáticos del municipio, etc. han sido y son tratados de manera intensiva. Normalmente el césped es ornamental, bien por nueva creación o bien por ser una zona renovada. Asimismo, las masas arbustivas y/o las composiciones florales, así como las nuevas plantaciones de arbolado de estos últimos años se concretan en estas zonas. El esmero se entiende a la hora de mantener las superficies escardadas y limpias, de malas hierbas y de basura, y a la hora del corte y perfilado de los setos, que debe ser mayor también.

B motako mantentzea: Udalerriko gainerako berdeguneak daude multzo honetan. Mantentze-lanak ertainak dira, bai maiztasunari dagokionez eta baita beste alderdiei dagokienez ere, batez ere soropilaren zaintzari, mozketari eta heskaien perfilatze-lanei dagokienez.

Mantenimiento de tipo B: Se refiere al resto de las zonas verdes del municipio, tratándose de un mantenimiento medio, en cuanto a frecuencias, en todos los aspectos mencionados, especialmente cuidado del césped, corte y perfilado de los setos.

E motako mantentze berezia: Tamaina txikiko zonaldeak izanik Udalak, kokalekuagatik, potentzialagatik edo interesagatik, bereziki nabarmentzen dituenak, arreta bikainagoa jaso dezaten, apaindurazko tratamenduari (loreak edo bestelakoak erabiliz), jorratzeari, garbiketari eta mozketari dagokienez. Zonalde hauetan, mantentze-lanari esker zonaldeak urte osoan egongo dira erakusgarri eta nabarmenduta, ez garai edo sasoi jakinetan bakarrik.

Mantenimiento de tipo E (especial): Se refiere a zonas de pequeña extensión, pero que por su ubicación, potencial o interés son destacadas por el Ayuntamiento para que reciban una atención más exquisita en cuanto a su tratamiento ornamental (con flor o por otros medios), escarda, limpieza y siega. De estas zonas se exige un mantenimiento que les permita lucir o destacar todo el año y no sólo en épocas o estaciones puntuales.

II. SORTA.

LOTE II.

C motako iraunaraztea: Mantentze-lan hauek egingo dira apaindurari dagokionez interes eskasekoak diren zonaldeetan eta leku malkartsuetan eta horrelakoetan egonik orografia berezia dutelako edo jenderik ibiltzen

Mantenimiento de tipo C: Estos mantenimientos se refieren a zonas que, por su escaso interés ornamental, por su especial orografía sobre todo de pendientes pronunciadas, y por situarse en lugares no transitados requieren una atención de

ZIRRIBORROA - BORRADOR

ez den lekuetan daudelako funtsean garbi eta sastrakarik gabe mantentzea behar duten aldeetan.

Iraunarazte edo mantentze-lan mota horren azalera osoa kontuan hartuta, ez da beharrezkoa ekipo baten arduraldia urte osoan; beraz, sorta honetarako eskaintzak zehaztu beharko du zenbat ebaketa egingo diren, urteko zein garaitan eta zenbat egunetan, segagintzaren atalean jasotzen den gehieneko belar-altuera bermatu ahal izateko.

Gainerako lanak ere mantentze-lan mota horren pean biltzen diren zonen tipologiarekin lotuta daudela ulertzen da. Oro har, C gisa kalifikatutako eremuetan, honako hauek izango dira zeregin nagusiak: belarra moztea, oihanpeak garbitzea eta zuhaitzekin zerikusia dutenak: moztea, landatzea, etab.

1.2.- Egin beharreko lanak.

Bi sortetarako, esleipendunak eman beharreko zerbitzuak honako lan hauek hartzen ditu barruan:

a) Ureztatzea eta ureztatze-sareen zaintza.
b) Soropila moztea, berriz ereitea, aireberritzea, tarteak aitzurtzea eta jorratzea.
c) Heskaiak, zuhaitzak eta zuhaixkak moztea eta inaustea.
d) Garbitzea eta lurra estaltzen duten materiala mantentzea.
e) Garaian garaiko lorea aldatzea eta behar bezala zaintzea.
f) Oihanpeak garbitzea eta hostoak jasotzea.
g) Ibiltokiak, zuhaitz-txorkoak eta nasak itxuratzea, bai eta leku horietan hartxintxarra isurtzea ere.
h) Landaretza espontaneoko ezpondak eta belarguneak mantentzea.
i) Zuhaitz-txorkoak mantentzea.
j) Zuhaitzak babestea.
k) Tratamendu fitosanitarioak eta ongarriztatzeak.
l) Z l) Zuhaitz lehor eta arriskutsuak moztea.
m) Lorategi berriak landatzea eta sortzea, eta baita hondatutako belarguneak aldatzea edo

limpieza y de contención de maleza, fundamentalmente.

Por la superficie total que agrupa este tipo de mantenimiento no requiere de una dedicación de un equipo durante todo el año, por lo que la oferta para este lote deberá definir cuántos cortes, en qué épocas del año y durante cuántos días se van a efectuar para garantizar la altura máxima de hierba que se recoge en el apartado de siega.

El resto de labores se entienden también que guardan relación con la tipología de zonas que se agrupan bajo este tipo de mantenimiento. En general, en las zonas calificadas como C las tareas principales van a ser la siega de hierba, la limpieza de sotobosque y las relacionadas con el arbolado: apeo, plantación, etc.

1.2.- Trabajos a desarrollar.

Para los dos lotes, el servicio que se ha de prestar por parte de las/os adjudicatarias/os comprende la realización de los siguientes trabajos:

a) Riegos y conservación de redes de riego.
b) Siega de céspedes, resiembra, aireación, entrecavado y escarda.
c) Recortes y podas de setos, árboles y arbustos.
d) Limpieza y mantenimiento de material cubresuelos.
e) Plantación y conservación de flor de temporada.
f) Limpieza de sotobosques y recogida de hoja.
g) Perfilado y vertido de gravilla en paseos, alcorques y andenes y mantenimiento de suelos inertes.
h) Mantenimiento de taludes y zonas verdes de vegetación espontánea.
i) Mantenimiento de alcorques.
j) Protección del arbolado.
k) Tratamientos fitosanitarios y abonados.
l) Apeo de arbolado seco y peligroso.
m) Creación, reposición o mejora de jardines o zonas verdes degradadas.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

hobetzea ere.

n) Lorategietako eta inguruko eremuetako belar txarrak eta landare inbaditzaileak kentzea (espaloietan, arkeketan, etab.) eta Udalak baimendu gabeko landareak edo elementuak.

ñ) Larrialdietan eta salbuespenezko egoeretan egin beharreko jarduketak: izozteak, elurteak, uholdeak, haize bortitzak, alertak, etab.

o) Berdeguneen eta lerrokatze-zuhaitzen inbentario digitalizatua mantentzeko eta eguneratzeko informazioa ematea.

Lan guztiak baldintza partikularretara egokituz egingo dira, belarguneak botanika- eta apaindura-egoera perfektuan zaintzeko, lan bakoitzarentzat ondoren esaten den moduan, hain zuzen.

a) <u>Ureztatzea eta ureztatze-sareak zaintzea.</u>

Landare-elementuak aldian behin edo egunero ureztatuko dira beharrezkoa den urte-sasoietan. Baldintza edafoklimatikoek eta dauden landare-motek baldintzatuko dute ureztatze hori eta hala, landare-elementuek beren garapen normalerako behar duten ur guztia izango dute.

Ureztatzeko sarea dagoen lekuetan, esleipendunaren esku geratuko da ureztatzeko sareak ondo funtziona dezan zaintzea. Udal-zerbitzuek aldez aurretik baimena eman ondoren, esleipendunak hobekuntzak egin ahal izango ditu sarean. Udalak, halaber, sare berriak ezarri edo daudenak hobetu ahal izango ditu, eta mantentze-lanak kontratistaren esku geratuko dira.

b) <u>Soropila moztea, berriz ereitea, aireberritzea, tarteak aitzurtzea eta jorratzea.</u>

Belarrak ezin izango du loratégia lotsabide uzteko eta soropilari kalte argia egiteko moduko altuerarik izan. Hala, honako altuera hauek izan beharko dituzte, eremuen arabera: A mantentze-eremuetan, 8 cm baino gehiagoko altuera ezingo du gainditu, B mantentze-eremuetan ezingo du 12 cm baino gehiagoko altuera gainditu, eta C mantentze-eremuetan ezingo du 18 cm baino gehiagoko altuera

n) Eliminación de malas hierbas, plantas invasoras de los jardines y de sus zonas próximas (aceras, cunetas, etc.) y plantas o elementos no autorizados por el Ayuntamiento.

ñ) Actuaciones a realizar en caso de emergencia y situaciones excepcionales: heladas, nevadas, inundaciones, fuertes vientos, alertas, etc.

o) Aporte de información para el mantenimiento y actualización del inventario digitalizado de zonas verdes y de arbolado de alineación.

El conjunto de las labores se realizarán ajustándose a las condiciones particulares para conservar las zonas verdes en perfecto estado botánico y ornamental, en la forma que a continuación se comenta para cada labor.

a) <u>Riegos y conservación de redes de riego.</u>

Los elementos vegetales se regarán esporádica o diariamente en las épocas del año que fuese necesario, dependiendo de las condiciones edafoclimáticas y de las especies de plantas existentes de forma que encuentren en el porcentaje de agua útil necesaria para su normal desarrollo.

Correrá por cuenta de las/os adjudicatarias/os la conservación de la red de riego, allí donde exista esta instalación, en condiciones óptimas de funcionamiento. Previa autorización de los servicios municipales, el/la adjudicatario/a podrá realizar mejoras en la red. El Ayuntamiento también podrá instalar nuevas redes o mejorar las existentes, pasando el mantenimiento a cuenta del contratista.

b) <u>Siega de céspedes, resiembra, aireación, entrecavado y escarda</u>.

La hierba no debe alcanzar una altura tal que suponga un desdoro del jardín y un perjuicio neto para el césped, entendiéndose esta altura según las áreas, no superior a 8 cm. en áreas de mantenimiento A, a 12 en áreas de mantenimiento B y a 18 cm. en las zonas C. Comprende también esta labor el rastrillado y limpieza de los productos sobrantes.

ZIRRIBORROA - BORRADOR



Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

gainditu. Zeregin honen barruan daude, halaber, sobratutako produktuen eskuaretzeko eta garbitzeko lana.

Eskaintzek zonalde bakoitzerako finkatutako altuerak lortzeko aplikatu nahi dituzten sega-maiztasunak eta etekinak jaso beharko dituzte.

Las ofertas deberán recoger las frecuencias de siega y los rendimientos que esperan aplicar para conseguir las alturas fijadas para cada zona.

2. sortarako, era berean, zehaztu egin beharko da mozketak zein garaitan egitea aurreikusten den eta C zona osoko mozketa bakoitzean zenbat denbora emango duten.

Para el lote 2, se deberá concretar también la época del año en que se prevén hacer los cortes y cuánto tiempo dedicarán en cada corte de toda la zona C.

Udal teknikoek egokia irizten dutenean soropilaren ondorioz sobratutako produktuak ez dira jasoko. Udalak erabakiko du aipaturiko materiala zer lekutan jasoko den eta baita ere jasotzeko irizpideak zer garaitan aplikatuko diren.

En los casos en los que los técnicos municipales lo estimen oportuno, no se realizará la recogida de material sobrante de la siega. El Ayuntamiento decidirá las zonas y el período de implantación de los criterios de recogida de dicho material.

Baldin eta belargune berriak egin behar badira edo soropilak bukatu gabe edo hondatuta badaude, soropila erein edo berriz ereingo da. Udazkenaren hasieran edo udaberrian egingo da, Lorategien udal ordenantzan jasotakoari jarraiki; soropila itxi egingo da, gainera, hala behar izanez gero, harik eta dena ondo ezarrita egon arte.

Siempre que haya que formar nuevas zonas verdes o existan superficies encespedadas incompletas o erosionadas, se efectuará siembra o resiembra de césped en el inicio del otoño o primavera, según las indicaciones de la Ordenanza Municipal de Jardinería, procediéndose a su cerramiento si fuera preciso hasta su completa implantación.

Udal-teknikariek beharrezkoa ikusten dutenean, apaindura-guneko soropiletan, soropila aireberritu eta berrelikatuko dute lurrustelaz edo turbaz eta hareaz; horrekin batera, bertan dauden zatiak kendu, alperra pasatu eta ureztatu egingo dute.

En los céspedes de zonas ornamentales se procederá cuando lo estimen necesario los técnicos municipales a la aireación del césped y a su recebo con mantillo o turba y arena, retirada de fragmentos, pase de rodillo y riego.

Soropila horietatik ere belar txarrak kendu egingo dira eskuz. Herbizidak, berriz, Udaleko zerbitzu teknikoek erabakitzen dutenean bakarrik erabiliko dira.

De estos céspedes se eliminarán también las malas hierbas a mano, reservando la aplicación de herbicidas para casos en que lo determinen los Servicios Técnicos Municipales.

Soropilguneen ertzetan, soropilaren azalera moztuko da aldian behin, soropilak berak loreen bideak, zintarriak eta parterreak har ez ditzan; soberan geratzen den zatia ere kendu egingo da, sustraietaraino.

En los límites de las áreas de césped, y con objeto de que éste no invada la zona de caminos, bordillos o parterres de flores, se realizará periódicamente un recorte de la superficie encespedada, arrancando incluso la parte sobrante hasta las raíces.

Tarteak behar diren guztietan aitzurtuko dira lorez osatutako mendiguneetan, zuhaitzetan edo

Los entrecavados se darán asimismo con la frecuencia necesaria en los macizos en flor,

ZIRRIBORROA - BORRADOR



Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

zuhaixketan.

árboles y arbustos.

c) Heskaiak, zuhaitzak eta zuhaixkak moztea eta inaustea.

c) Recortes y podas de setos, árboles y arbustos.

Mozketak eta inausketak landareentzat komenigarrien diren sasoietan eta moduetan egingo dira. Andoaingo Udaleko zerbitzu teknikoek adierazitako inausketak egingo dira, eta baldintza-agiri honen zenbateko ekonomikoan sartuta egongo dira horretarako beharrezkoak diren lan guztiak.

Recortes y podas se realizarán en las épocas y formas precisas más convenientes para la mejor vegetación de las plantas, así como para su conformación. Se realizarán las podas indicadas por los Servicios Técnicos de Ayuntamiento de Andoain, incluyéndose dentro del montante económico del presente pliego todos los trabajos necesarios para ello.

Kontrol handiagoa behar duten heskaia espezieen mozketan eta perfilatze-lanetan bereziki zaindu beharko dira errremateak, maiztasuna eta geometria (arbustu arruntak, basaerramuak, eta abar). Zaintzari dagokionez, heskaiek dagokien zonaldeari dagozkion mantentze-lanak jasoko dituzte: A, B edo C.

Se deberán cuidar los remates, las frecuencias y la geometría de los cortes y perfilados en las especies de setos que necesitan un mayor control (aligustres, boneteros, etc.) En lo que respecta a su cuidado, los setos recibirán el mantenimiento que corresponda a la zona en que se ubiquen o al lote que correspondan: A, B o C.

Inausketa-irizpide eta motak lorategien udal ordenantzak zehaztutako jarraibideen araberakoak izango dira.

Los criterios y tipos de poda seguirán las indicaciones que marca la Ordenanza Municipal de Jardinería.

Nolanahi ere, inausteak berariaz zerbitzu teknikoekin erabaki eta programatu beharreko urtaroko plangintza egitea eskatuko du.

En cualquier caso, la poda será objeto de planificación estacional específica a decidir y programar con los Servicios Técnicos Municipales.

Zuhaitzak inausteko lanak egiteko, jasotze-plataformak edo beste segurtasun-erabide batzuk erabiltzea aztertuko da.

Se señalarán las técnicas y los medios a emplear para realizar las podas, así como las medidas de seguridad empleadas.

Zuhaitzen egoerari buruzko azterketa edo ebaluazio bat aurkeztea eta inausketa-lanetan igotzeko teknikak eta plataforma jasotzaileak erabiltzea baloratuko da. Ebaluazio hori aurkeztuz gero, gutxienez honako atal hauek jaso beharko dira: zuhaitzen egoera orokorra alderdika, arriskutsutzat jotzen den zuhaiztia, urteko inausketa-plana, inausketa-bideak zuhaitz-motaren arabera eta erabili beharreko teknika mota bakoitzeko orduak eta makina-orduak.

Se valorará la presentación de un estudio o evaluación de la situación del arbolado y el empleo de técnicas de trepa y de plataformas elevadores en las labores de poda. En caso de presentarse esta evaluación deberá contener como mínimo los siguientes apartados: situación general del arbolado por zonas, arbolado que se considera peligroso, plan de poda anual, métodos de poda por tipo de arbolado y horas con cada tipo de técnica a emplear y horas de máquina disponibles.

d) Garbiketa eta lurra estaltzen duen materiala mantentzea.

d) Limpieza y mantenimiento de material cubresuelos.

ZIRRIBORROA - BORRADOR



Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

Esleipendunaren langileek arreta berezia eta etengabea jarri beharko dute adierazi den inguruko azalera guztiak garbitzeko eta lurra estaltzen duen materiala egoera onean mantentzeko. Garbiketa egiteko, honako elementu hauek kendu beharko dituzte: alde batetik, hazkunde espontaneoa izandako landaretza (belar txarrak), eroritako hostoak, igitatzeko, mozteko eta inausteko lanek sortutako hondakinak (Udalak ez jasotzeko erabakitzen dituen guneetan izan ezik); bestetik, edozein arrazoirengatik utz daitezkeen paperak, zakarrak eta zaborrak.

El personal dependiente del/de la adjudicatario/a deberá una atención constante y meticulosa a la limpieza de todas las superficies comprendidas dentro del perímetro señalado y al mantenimiento en buen estado del material cubresuelos colocado. La labor de limpieza consistirá en la eliminación, tanto de la vegetación de crecimiento espontáneo (malas hierbas), hojas caídas, restos de labores de siega (salvo en las zonas que el Ayuntamiento decida no recoger), recortes y podas, como de los papeles, desperdicios y basuras que por cualquier causa puedan depositarse.

Aipatutako materia horiek garbitzeaz, jasotzeaz eta pilatzeaz gain, esleipendunak haiek guztiak bere esku dituen baliabideak erabiliz erretiratzeko betebeharra du. Halaber, horren barnean dago zuhaitz-txorkoa garbitzea ere. Hondakinen kudeaketa Udalak edo Tolosaldeako Mankomunitateak ezarritako irizpideak jarraituz egin beharko da beti.

La obligación del/de la adjudicatario/a no se limita al barrido, recogida y amontonamiento de las indicadas materias, sino que ha de completarse con la retirada inmediata de todas ellas, con medios a su cargo. La gestión de los residuos se hará de acuerdo con lo que en cada momento establezca el Ayuntamiento o la Mancomunidad de Tolosaldea.

Zaindu beharreko belarguneetan kultura- eta gizarte-ekintzaren bat edo beste era bateko ekintzaren bat antolatzen bada, gune hori nahitaez garbitu egin beharko da ekintza hasi aurretik. Zeregin horrek, baina, ez du kontratuaren prezioa igoko.

Cuando se produzcan actos culturales, sociales, deportivos o de cualquier otro carácter extraordinario en las zonas verdes objeto de conservación, será obligatoria la limpieza total de la zona afectada, de forma inmediata a la realización del acto sin que éste suponga un incremento del precio de contrata.

e) L<u>oreak landatzea eta zaintzea.</u>

e) <u>Plantación y conservación de flor.</u>

Urtean zehar lorea landatzeko ekinaldi-proposamen bat egingo da, zein motatakoa (sasoiko lorea, erraboilak, biziguneak, etab.), zonaldeak eta dentsitatea adieraziz.

Se realizará una propuesta de campaña de plantación de flor a lo largo del año, indicando de qué tipo (flor de temporada, bulbos, vivaces, etc.), las zonas y la densidad.

Kontratak hartuko du bere gain horren zaintza eta horrek bat dakar jorraketa lana eta ureztatzea, beharrezkoa denean.

La contrata cuidará de su conservación lo que incluye la escarda y el riego cuando así se requiera.

Enpresa esleipenduneko teknikariek behar besteko aurrerapenarekin egin beharko dute landatu beharreko espezieen eta kopuruaren proposamena, proposatzen diren helburuen arabera. Era berean, lorearen alderdi estetikoa eta iraupena nabarmentzeko edo hobetzeko egokiak iruditzen zaizkion erabide edo osagai

El personal técnico de la empresa adjudicataria deberá realizar con la suficiente antelación la propuesta de especies y cantidad a plantar, de acuerdo con los objetivos que se propongan. Propondrá asimismo los sistemas o elementos ornamentales que crea convenientes para realzar o mejorar tanto el aspecto estético como la

ZIRRIBORROA - BORRADOR



Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

apaingarriak proposatuko ditu.

Landarea aukeratu aurretik, sasoiko lorea hornitzen duten hiru enpresen aurrekontuak aurkeztu beharko ditu enpresa esleipendunak, horien artetik aukerarik interesgarriena aukeratu ahal izateko.

Lorea landatzeko ekinaldi proposamenean adieraziko da zein mintegik hornituko duen landarea.

2. sortak ez du izango, hasiera batean, lore-landaketa duen gunerik, Udalak landatzea eta iraunaraztea erabakitzen ez badu behintzat, sasoiko lorearekin edo beste mota batekoez (bizikorrak, etab.), mota horretako iraunarazte-lanen xede den eremuren batean.

f) Oihanpeak garbitzea eta hostoak jasotzea.

Suteak eta izurriteak izan ez daitezen, basoko eremuek garbi-garbi, hildako egurrik eta orbelik gabe egon beharko dute. Zuhaixka-geruza eta zuhaitz txikiekin kontuz jokatuko da, bere horretan iraun dezaten.

g) Ibiltokiak, zuhaitz-txorkoak eta nasak itxuratzea, bai eta leku horietan hartxintxarra isurtzea ere.

Itxura emango zaie berriro urak putzu eta arrastorik sortu gabe joan dadin; horrez gain, arekak eta estolda-zuloak garbi-garbi edukiko dira. Udal-zerbitzuek emango diote esleipendunari hartxintxarra. Beharrezkoa den lekuetan, hartxintxarra finkatzeko, kalterik sortzen ez duten produktuak erabiliko dira.

Legar edo galtzada-harrizko eremuetan, landaredia kendu egingo da. Hartxintxarrezko zoruak garbi eta nibelatuta iraunaraziko dira esku-hartze bakoitzaren ondoren. Putzuetako legarra ere lehengoratu egingo da, eta trinkotu egingo da, lehengoratze-obra sakonagoa egin behar ez bada. Udaleko zerbitzu teknikoek berariaz baimendu beharko dute jorraketa kimikoa.

pervivencia de la flor.

Con anterioridad a la elección de la planta, se deberá presentar por parte de la empresa adjudicataria tres presupuestos de empresas de suministro de flor de temporada para poder elegir la opción más interesante.

La propuesta de campaña de plantación de flor indicará los viveros que suministrarán la planta.

El lote 2 en principio no dispondrá de zona con plantación de flor, a menos que el Ayuntamiento decida su plantación y conservación, con flor de temporada o de otro tipo (vivaces, etc.) en algún ámbito objeto de este tipo de mantenimiento.

f) Limpieza de sotobosques y recogida de hoja.

Las áreas forestales se mantendrán limpias de madera muerta y hojarasca, como medida preventiva de incendios y proliferación de plagas, respetándose el estrato arbustivo y arbolado de pequeño tamaño.

g) Perfilado y vertido de gravilla en paseos, alcorques y andenes y mantenimiento de suelos inertes.

Se efectuará rehaciendo los perfiles para que las aguas discurran sin formación de charcos y regueros y se mantendrán limpias las cunetas y sumideros. La gravilla será suministrada por los servicios municipales. Donde se considere necesario, se aplicarán productos inocuos que fijen esas gravillas.

En zonas de grava o adoquín se procederá a la eliminación de la vegetación. Los suelos de gravilla se mantendrán limpios y nivelados tras cada intervención. Se restituirá, asimismo, la grava en las zonas de charcos y se compactará, siempre que no sea necesaria una obra de restitución más profunda. La escarda química deberá ser expresamente autorizada por los servicios técnicos municipales.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Hartxintxarrak edo material geldoak dituzten Andoaingo lorategi-guneen ebaluazioa aurkeztea baloratuko da, gutxienez haien egoeraren balorazioa eta lehengoratzeko eta iraunarazteko proposamena jasoko dituena.

Se valorará la presentación de una evaluación de las zonas de jardines de Andoain con gravas o materiales inertes que recoja como mínimo una valoración de su estado y una propuesta de regeneración y mantenimiento.

h) <u>Landaretza espontaneoko ezpondak eta belarguneak mantentzea</u>.

h) <u>Mantenimiento de taludes y zonas verdes de vegetación espontánea</u>.

Zuhaixka-landaretzarik ez duten belarrezko ezponda irekiak sega-makinarekin edo sasi-garbitzeko makinarekin moztuko dira, haiek dituzten aukeren arabera.

Los taludes cubiertos de hierba sin vegetación arbustiva se segarán con segadora o desbrozadora en función de sus posibilidades.

Sasiz eta hildako egurrez estalita badaude, eta haiek zaborra ezkutatzen badute, kendu egingo dira; dena den, zuhaixka eta zuhaitz txiki jakin batzuk errespetatuko dira.

Si están recubiertos de zarzas y madera muerta que puedan ocultar basura serán eliminadas, respetando cierto número de arbustos y arbolado de pequeño tamaño.

i) <u>Zuhaitz-txorkoak mantentzea.</u>

i) <u>Mantenimiento de alcorques</u>.

Zuhaitz-txorkoetako belarrak kendu egin beharko dira. Eskuz egingo da, baldin eta herbizidaren bat erabiltzeko udal-arduradunarekin ados jartzen ez bada.

Deberán retirarse las hierbas de los alcorques. La retirada será manual, salvo acuerdo previo con el encargado municipal para aplicar algún herbicida.

Sareta nola jartzen den zainduko da bereziki, zuhaitzak bere hazkuntzan arazorik izan ez dezan.

Se vigilará especialmente la colocación de rejillas para que el crecimiento de árbol no se vea afectado.

Udal-zerbitzuek beharrezkoa dela ikusten dutenean, zuhaitz-txorkoei lurra, pinu-azala edo hartxintxarra jarriko zaie espaloi-mailarekin tartea handiegia izan ez dadin. Material horiek, beharrezkoa denean, itsatsi egingo dira.

Cuando se estime necesario por parte de los servicios municipales se aportará tierra, corteza de pino o grava a los alcorques para que no exista hueco excesivo con el nivel de la acera. Esos materiales se fijarán cuando se considere necesario.

j) <u>Zuhaitzak babestea</u>.

j) <u>Protección del arbolado</u>.

Zuhaitz-oinetatik hurbil lorezaintza-lanetan hasi baino lehen, zuhaitz bakoitzak zer babes behar duen erabakiko da, edo kanpotik egindako erasoei nola egin aurre, sasi-garbitzeko makinekin egiten direnei, batez ere.

Antes del comienzo de los trabajos de jardinería en la proximidad de pies de árboles se determinará en cada caso la protección a establecer frente a posibles agresiones, especialmente con desbrozadoras.

Babesa zuhaitzak zaintzeko hartu beharreko neurriei ere badagokie, eta arreta berezia jarri beharko da lerrokatzeetan nahiz aparkatzeko guneetan: Autoen aurkako defentsak, haizearen aurkako tenkatzaileak, zurkaiztatzeak, etab.

